ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

PRENTSA OHARRA: 2025.11.19

Etxepare Euskal Institutuak “zubiak eraikitzen eta euskararen eta euskal kulturaren proiekzio globala sustatzen” eginiko 15 urteko ibilbidea babestu du Lehendakariak Parisen

— Orotara 300dik gora lagun bildu dira Frantziako Liburutegi Nazionalean egin den ospakizunean, politika, erakunde eta kultura arloko ordezkariak, eta Parisko euskal diasporako kideak barne

— Etxepare Euskal Institutuak modu sinbolikoan eman dizkio BnFri Bernat Etxepareren ‘Linguae Vasconum Primitiae’ lanaren 18 itzulpenak

— Lehendakariak iragarri du Etxepare Euskal Institutuak euskal ikasketen katedra berri bat sortuko duela Sorbonako Unibertsitatean

Paris, 2025eko azaroaren 19a -. Etxepare Euskal Institutuak bere jardueraren 15. urteurrena ospatu du gaur Parisen, horretarako espreski sortutako ikuskizun batekin. Ekitaldian 300dik gora lagun elkartu dira, kulturaren, erakundeen, politikaren eta euskal diasporaren ordezkaritza zabala barne.

Ekitaldia Frantziako Liburutegi Nazionaleko (BnF) areto nagusian egin da, esanahi sinboliko handia duen gunean: erakunde honek gordetzen du ‘Linguae Vasconum Primitiae’ (1545) lanaren ale bakarra —gaur egun Baionako Euskal Museoan ikusgai dagoena—, euskaraz inprimatutako lehen liburua eta Bernat Etxeparek idatzia. Etxepare da, hain zuzen ere, Institutuari izena ematen dion egilea, eta haren lelo ospetsua —«Euskara, jalgi hadi mundura»— erakundearen misioaren inspirazio-iturri izan da bere sorreratik.

Etxepare Euskal Institutuaren zuzendari nagusi Irene Larrazarekin batera izan dira ekitaldian Imanol Pradales Lehendakaria; Ibone Bengoetxea, Eusko Jaurlaritzako

lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua eta Ander Caballero, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia. Halaber, Parisen egoitza duten Europako kultura-institutuetako ordezkari, ordezkaritza diplomatikotako kide, Frantziako Asanblea Nazionaleko eta Europako Parlamentuko diputatu, Iparraldeko erakundeetako ordezkari, eta artista eta kultura-eragile zenbait ere bertaratu dira.

Ekitaldiak euskarak 1545ean argitaratu zen lehen liburutik egun duen nazioarteko proiekziora arteko ibilbidea irudikatu du. Bertan Lehendakariak, lehendakari ordeak, BnF-eko presidente Gilles Pécoutek eta Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak hartu dute hitza. Aurrez, Lehendakariak BnFko liburu arraroen gordailua bisitatu du, balio handiko euskarazko hainbat ale gordetzen diren tokia.

Bere hitzaldian, Lehendakariak iragarri du Etxeparek euskal ikasketen katedra berri bat sortuko duela Sorbona Unibertsitatean, eta katedrak Esther Ferrer artistaren izena eramango duela —Ferrer bera ekitaldian izan da. Halaber, Institutuak azken urteotan egindako lana nabarmendu du: “Hamabost urte euskararen eta euskal kulturaren ahotsa munduan hedatzen, elkarrizketak sortzen, eta komunitateak lotzen”. Pradalesek euskara “gure bihotz eta ezpainetan bizirik eta aske mantendu nahi dugun harribitxia” dela adierazi du, eta hizkuntza aniztasunaren aldeko aldarri irmoa egin du. “Europaren momentua da hau. Aukera ezin hobea dugu, ‘United in diversity’ leloa praktikara eramateko. Bada garaia euskararen ofizialtasuna Europako erakundeetan onartzeko. Egin dezagun behingoz posible”, esan du.

Bestalde, lehen lehendakariordeak adierazi du Etxepare Euskal Institutua ez dela “erakunde bat soilik”, baizik eta “munduari nor garen erakusteko funtsezko tresna, eta Euskadi ireki eta global baten kulturaren motorra”.

Amaitzeko, Etxepare Euskal Institutuko zuzendari nagusiak adierazi du hizkuntza eta kultura guztiak “funtsezkoak” direla. Larrazak nabarmendu du hizkuntza eta sorkuntza direla “munduari gure burua kontatzeko modu sofistikatuena, konplexuena, ederrena, anitzena eta egiazkoena”. Halaber, argi utzi du Institutuaren eginkizuna ez dela “gure begirada partekatzera mugatzen”, baizik eta “gure nortasuna besteenarekin

harremanetan jartzea” ere badela. “Gurea harrotasunez erakusten bai, baina entzuten ere ikasi dugu. Eta gure premien artean beste hau ere kokatu dugu: aniztasuna globalizatzea”.

Euskararen bidaia irudikatzen duen proposamen artistikoa

‘Linguae Vasconum Primitiae’ liburua abiapuntu duen ibilbidea marraztu du Olatz Beobide antzerkigileak zuzendu eta 15. urteurren honetarako espreski sortua izan den ikuskizun artistikoak. Etxepareren lanaren oinarri diren 15 silabako 15 poemek iradokitzen duten keinu sinbolikoari erreparatuz, proposamenak inprentaren hastapenera eraman du ikuslea, erakutsiz nola euskarak, 1545etik gaur arte, munduarekin lotzen zuen ibilbidea eraiki duen.

Manu Gaigne musikagileak sortutako soinu-bandak paisaia sonoro berezi bat ehundu du, inprenta zaharren erritmoak eta hizkuntzaren egungo hedapena uztartuz. Oinarri horren gainean garatu da Haatik konpainiaren koreografia, hitzen mugimenduari gorputza emanez.

Habia taldearen ahotsak eta soka-instrumentuek, Mikel Ugarte eta Manu Gaigneren txalapartaren indarrak eta Iñaki Alberdiren akordeoiak aberastu dute ibilbidea, Bernat Etxepareren bertsoekin etengabeko elkarrizketan.

Ikuskizunak 15. urteurrenerako irudia sortu duen Iurre Aranbururen proiekzioak izan ditu lagun. Zuzeneko soinuaren diseinua Patrick Fischerrek landu du, eta argiztapenaz Aitz Amilibia arduratu da.

Azken zatian, ‘Kontrapas’ poema entzun da Linguae Vasconum Primitiae lana itzuli den 18 hizkuntzetan, euskarak komunitate desberdinetara heltzeko izan duen gaitasunaren metafora gisa. Ahots-aniztasun horrek kidetasun eta erresonantzia partekatuen mapa emozional bat marraztu du.

Ekitaldia BnFri egindako 18 itzulpen horien donazio sinbolikoarekin amaitu da —itzulpenak Euskaltzaindia eta Eusko Legebiltzarraren arteko lankidetzari esker egin ziren; braille edizioaren kasuan, ONCErekin lankidetzan—. Keinu honek erakusten du

euskara edozein hizkuntzarekin elkarrizketan aritzeko gai dela, Etxepareren legatuaren gaurkotasuna berretsiz.

Ordezkaritza zabala

Etxepare Euskal Institutuaren 15. urteurreneko ospakizunak ordezkaritza instituzional, kultural eta diplomatiko nabarmena bildu du. Ipar Euskal Herriko erakundeen izenean bertaratu dira, besteak beste, Jean-René Etchegaray, Euskal Hirigune Elkargoko presidentea; Johañe Etxebest, Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria eta Etxepare Euskal Institutuko patronatuko kidea; eta Sabine Cazenave, Baionako Euskal Museoaren zuzendaria.

Ekitaldian izan dira, halaber, Peio Dufau, Frantziako Asanblea Nazionaleko diputatua; Oihane Agirregoitia europarlamentaria; Victorio Redondo, Espainiako enbaxadorea Frantzian; Kataluniako Generalitateko ordezkariak; eta Frantziako Gobernuko Kultura Ministerioko ordezkariak. Horiekin batera, frankofoniako hainbat herrialdetako enbaxadetako ordezkariak ere bertaratu dira, besteak beste Andorrakoak, Gabongoak eta Kongoko Errepublikakoak. Parisko Euskal Etxeko zuzendaritza eta elkarteko kide ugari ere ekitaldian izan dira.

Urteurrena ospatzeko, Europako hainbat kultura-institututako ordezkariak ere bildu dira BnFn: Instituto Cervantes, Institut Ramon Llull, Consello da Cultura Galega, Serbiako Kultur Zentroa eta Institutu Kurdukoak, besteak beste. Bertan izan dira, baita ere, Miquel Iceta, Espainiaren enbaxadorea UNESCOren aurrean, eta Alfredo Sancho, Hezkuntza sailburua OCDE, UNESCO eta Europar Kontseiluan.

Ospakizunean izan dira, gainera, Miren Arzalluz —Etxepare Euskal Institutuko zuzendari izandakoa eta gaur egun Guggenheim Bilbao Museoko zuzendaria—, bai eta Sorbona, Sorbonne Nouvelle, EHU eta Mondragon Unibertsitateko hainbat akademiko ere.

Arlo artistikoa ere ordezkatuta egon da. Parisen bizi diren Juan Pérez Agirregoikoa artista eta Ramon Lazkano konpositorea bertaratu dira, baita Esther Ferrer sortzailea ere. Hain zuzen ekitaldian bertan iragarri da Etxepare Euskal Institutuak Sorbonako Unibertsitatean Esther Ferrer izena eramango duen Euskal Ikasketen Katedra sortuko duela, nazioarteko ospea duen artista aitzindari honek euskal arte garaikideari egindako ekarpen paregabea aitortuz.

Nazioarteko kongresuaren bigarren jardunaldia Sorbonan

Katedra berri honen sorrera Etxepare Euskal Institutuak urte luzez Frantziako esparru akademikoan egindako lanaren emaitza da, eta ibilbide horrek berak eraman du erakundea bere 15. urteurrena Parisen ospatzera. Goiz honetan bertan hasi da Sorbonne Nouvelle unibertsitatean 'Langues minorisées en contexte francophone: traduire, transmettre, transformer' ('Hizkuntza gutxituak testuinguru frankofonoan: itzuli, transmititu, eraldatu') nazioarteko kongresua, Etxepare Euskal Institutuak unibertsitate honekin eta Sorbonako Unibertsitatearekin lankidetzan antolatuta.

Biltzarrak bederatzi unibertsitatetako 20 hizlari bildu ditu, testuinguru frankofonoan hizkuntza gutxituek gaur egun dituzten erronken inguruan hausnartzeko. Hala, Parisko bihotz akademikoan egoera diglosikoan daude hizkuntzen funtzio soziala eta hizkuntza aniztasunaren garrantzia azpimarratu dira. Bihar Sorbonako Unibertsitatean jarraituko du bigarren jardunaldiak.

Ekitaldiok Etxepare Euskal Institutuaren 15. urteurrenaren eta Ça colle au basque ekimenaren testuinguruan kokatzen dira, unibertso frankofonoan euskararen eta euskal sorkuntzaren proiekzioa indartzeko abiatutako egitasmoa.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko

sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetza sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus